

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2025eko martxoa

2025eko martxoan, Euskal AEko landa-ostatuetau gauldiak % 36,8 jaitsi dira, eta % 0,5 apartamentu turistikoetan, Aste Santuko egutegiaren ondorioz

Aterpetxe turistikoetan, ostatu-gauen kopurua % 10,7 jaitsi da aurreko urteko martxoarekin alderatuta

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko **landa-ostatuetau** ostatu-gauen kopurua % 36,8 jaitsi da **2025eko martxoan**, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. Sarrerak 8.927 izan dira, hots, % 26,8 gutxiago urtetik urtera, eta ostatu-gauak 19.851 izan dira. Kontuan hartu behar da aurtengo martxoarekin alderatu den 2024ko martxoan Aste Santua izan zela, eta 2025ean, berriz, Aste Santua apirilean izan dela.

Euskal AEko landa-ostatuetauko sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Martxoa 2025

	Sarrerak		Gauldiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2025/03	m/m-12 (%)	2025/03	m/m-12 (%)	2025/03	2024/03	2025/03	p.p. *	2025/03	p.p. *
EUSKAL AE	8.927	-26,8	19.851	-36,8	2,22	2,58	17,0	-8,1	20,8	-8,5
Estatukoak	7.639	-27,1	16.889	-38,2	2,21	2,61	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.288	-25,1	2.962	-27,5	2,30	2,38	-	-	-	-
Araba/Álava	1.325	-45,1	3.216	-47,7	2,43	2,55	10,5	-9,1	13,5	-9,8
Estatukoak	1.196	-45,4	2.657	-54,3	2,22	2,66	-	-	-	-
Atzeritarrak	129	-42,2	559	67,9	4,33	1,49	-	-	-	-
Bizkaia	1.886	-48,7	3.846	-57,2	2,04	2,45	11,9	-13,8	14,9	-15,8
Estatukoak	1.685	-47,4	3.458	-57,5	2,05	2,54	-	-	-	-
Atzeritarrak	201	-57,1	388	-54,7	1,93	1,83	-	-	-	-
Gipuzkoa	5.716	-6,5	12.789	-21,4	2,24	2,66	23,6	-4,1	28,6	-3,0
Estatukoak	4.758	-6,4	10.774	-19,4	2,26	2,63	-	-	-	-
Atzeritarrak	958	-6,9	2.015	-30,5	2,10	2,82	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteaz izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Apirilaren 25a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2025eko martxoan Euskal AEko landa-ostatuetau erregistratutako sarreren % 85,6 Estatuko bisitarienak izan dira, eta % 27,1eko beherakada gertatu da aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. Ostatu-gauen kopurua % 36,8 jaitsi da urtetik urtera, eta martxoan erregistratutakoen % 85,1 izan dira Estatuko bisitarienak.

Sarreren kopuruaren urtetik urterako beherakada % 45,1ekoa izan da Araban. Bizkaian, beherakada % 48,7koa izan da, eta Gipuzkoan, berriz, % 6,5ekoa. Ostatu-gauen kopuruak ere behera egin du aurreko urteko martxoarekin alderatuta (% 57,2 Bizkaian, % 47,7 Araban eta % 21,4 Gipuzkoan).

Euskal AEn, establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 2,22 egunekoa izan da martxoan, hau da, 2024ko hilabete berekoa baino txikiagoa (2,58 egun 2024ko martxoan). Batez besteko egonaldiak ez du adierazten Euskal AEra etortzen diren bidaiarien egonaldiaren guztizko iraupena, gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste ematen duten egun kopurua baizik.

Plazen arabera okupazio-mailak portzentajezko 8,1 puntuko jaitsiera izan du urtetik urtera, eta % 17,0ra iritsi da. Gelen arabera neurtuta, berriz, portzentajezko 8,5 puntuko jaitsiera izan da urtetik urtera, eta % 20,8ra iritsi da.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2025eko martxoan 15.277 sarrera eta 53.895 ostatu-gau erregistratu dira. Aurreko urteko martxoarekin alderatuta, sarrerek % 2,8ko jaitsiera izan dute, eta ostatu-gauak, berriz, % 0,5ekoa.

Apartamentu turistiko deitzen zaio ustiapeneko enpresa-unitate bakar batek bloke edo multzo gisa eskaintzen duen ostatu-unitate bakoitzari. Ez dira epigrafe honetan sartzen erabilera turistikoko etxebizitzak, hau da, helburu turistikoetarako aldi baterako eskaini, merkaturatu edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Martxoa 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamentuduka	
	2025/03	m/m-12 (%)	2025/03	m/m-12 (%)	2025/03	2024/03	2025/03	p.p. *	2025/03	p.p. *
EUSKAL AE	15.277	-2,8	53.895	-0,5	3,53	3,45	31,3	-5,1	59,2	-4,7
Estatukoak	10.903	-6,6	35.742	-4,3	3,28	3,20	-	-	-	-
Atzeritarrak	4.374	8,3	18.153	7,8	4,15	4,17	-	-	-	-
Araba/Álava	461	-44,3	8.788	-2,5	19,04	10,89	26,9	-1,3	73,6	-6,5
Estatukoak	391	-48,8	5.251	-16,5	13,42	8,22	-	-	-	-
Atzeritarrak	70	11,2	3.537	29,6	31,00	31,00	-	-	-	-
Bizkaia	10.318	-4,6	25.205	6,1	2,44	2,20	30,3	-6,0	46,4	-0,6
Estatukoak	7.440	-5,2	17.243	9,3	2,32	2,01	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.878	-2,9	7.962	-0,3	2,77	2,69	-	-	-	-
Gipuzkoa	4.497	10,3	19.902	-7,0	4,43	5,25	35,1	-6,4	68,8	-5,3
Estatukoak	3.072	0,2	13.248	-13,3	4,31	4,99	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.425	41,0	6.654	8,6	4,67	6,06	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Apirilaren 25a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 71,4 eta ostatu-gau guztien % 66,3 Estatuko bisitarientzat izan dira, eta urtetik urterako % 6,6ko eta % 4,3ko jaitsierak izan dituzte, hurrenez hurren.

2025eko martxoan, establezimendu horietako batez besteko egonaldia 3,53 egunekoa izan da, hau da, 2024ko martxoan lortutakoa baino handixeagoa (3,45 egun 2024ko martxoan).

Plazen arabera, Euskal AEko okupazio-maila % 31,3ra iritsi da, eta, beraz, 2024ko martxokoa baino portzentajezko 5,1 puntu txikiagoa izan da. Apartamentuen arabera, berriz, okupazio-mailak portzentajezko 4,7 puntuko jaitsiera izan du, eta % 59,2ra iritsi da.

Azkenik, **aterpetxe turistikoei** dagokienez, **2025eko martxoan** sarrerak eta ostatu-gauak 15.608 eta 29.096 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko martxoarekin alderatuta, sarrerek % 15,1eko jaitsiera izan dute, eta ostatu-gauak, berriz, % 10,7koa.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Martxoa 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2025/03	m/m-12 (%)	2025/03	m/m-12 (%)	2025/03	2024/03	2025/03	p.p.
EUSKAL AE	15.608	-15,1	29.096	-10,7	1,86	1,77	29,0	-3,2
Estatukoak	8.488	-9,4	15.591	-0,6	1,84	1,67	-	-
Atzerritarrak	7.120	-20,9	13.505	-20,1	1,90	1,88	-	-
Araba/Álava	381	55,9	489	8,2	1,28	1,85	10,9	1,8
Estatukoak	314	35,1	422	-1,8	1,34	1,85	-	-
Atzerritarrak	67	469,4	67	203,7	1,00	1,88	-	-
Bizkaia	9.032	-18,9	16.675	-18,4	1,85	1,84	32,8	-6,0
Estatukoak	5.144	-7,7	9.656	2,9	1,88	1,68	-	-
Atzerritarrak	3.888	-30,2	7.019	-36,6	1,81	1,99	-	-
Gipuzkoa	6.195	-11,4	11.932	2,0	1,93	1,67	26,5	-0,3
Estatukoak	3.030	-15,1	5.513	-6,1	1,82	1,65	-	-
Atzerritarrak	3.165	-7,6	6.419	10,3	2,03	1,70	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Apirilaren 25a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzailleen Inkesta

2025eko martxoan, Euskal AEko aterpetxe turistikoetako batez besteko egonaldia 1,86 egunekoa izan da (1,77 egunekoa 2024ko martxoan). Azkenik, okupazio-maila % 29,0koa izan da, hots, aurreko urteko hilabete berean erregistratutakoa baino 3,2 puntu txikiagoa.

Informazio-oharra

2025eko martxoan, ETH inkestaren erantzun-tasa % **98,5ekoa** izan da landa-ostatueta, % **93,2koa** apartamentu turistikoetan eta % **91,3koa** aterpetxe turistikoetan.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei, egindako ahaleginagatik.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa Zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62